

AZOKA TXIKIA

TOKIKO EKOIZLEEN AZOKA IRAILAREN 25EAN

URKABUSTAIZKO UDALAK AZOKA TXIKIA ANTOLATU DU IRAILAREN 25ERAKO. AZOKAREN HELBURUA DA TOKIKO EKOIZLEEI ETA MERKATARIEI LAGUNTzea ETA HORIEI IKUSGARRITASUNA EMATEA; ETA, HORREZ GAIN, HERRITARRAK TOKIAN TOKIKO KONTSUMITZEAZ SENTSIBILIZATzea.



Hain zuzen ere, Udalak honako ideia hau helarazi nahi die herritarrei: "Bertakoa kontsumituz, gure bizilagunei lagunduko diegu eta gure herriaren ongizatean inbertituko dugu, eta, azken batean, gure ongizatean".

Horrela, Urkabustaizko ekoizle eta artisauek 15 postu baino gehiago izango dituzte irailaren 25ean Izarran 11:00etatik 14:30era. Hantxe, 0 kilometroko produktuak ezagutu, dastatu eta erosi ahal izango dira.

Baina antolatutako jarduerak ez dira horretara mugatuko, sensibilizazio jarduerak ere garrantzi handia izango baitute azoka honen testuinguruan. Adibidez, egitaraua irailaren 23an, ostiralean, hasiko da. Egun horretarako antzerki foroa antolatu da. Yokerendan antzerki taldeak 'Cuando el río suena agua lleva' antzezlan eskainiko

du kultur etxean 19:00etan. Ondoren, krisi klimatikoari eta giza eskubideei buruzko mahai-ingurua egingo da.

Gainerako ekitaldiak igandean izango dira: azokan, Funky Brass 'Molto Vivace Brass Band musika taldeak Izarrako txokoak girotuko ditu. Eta ordu berean bi tailer jarriko dira martxan: 'Baratze Bertikala' Alluitz Naturaren eskutik eta 'Jaso ezazu zure poltsa' Kolonia Euskadi-ren eskutik.

Ondoren, Dramagia Producciones-ek 'Mister Blancoren misterioak' magia ikuskizuna eskainiko du 12:00etatik aurrera, eta ordu erdiko lau txanda izango dira.

Amaitzeko, egun berean, 19:00etan, Alex Galanek zuzendutako 'Salvajes, el cuento del lobo' filma proiektatuko da kultur etxean.



UDALERRIKO NEGOZIO GIDA

Azokaren aitzakian, Urkabustaizko Udalak herriko negozioien gida prestatu du, azokan bertan eskuragarri egongo dena. Gida honetan Urkabustaizko 38 negozio ageri dira, besteak beste gaztandegiak, haragi salmenta, garagardotegiak, elikadura-saltokiak, nekazaritza-turismoak, jatetxeak eta tabernak, garraioa, automobil garajeak, lorezaintza, arotzak, ile-apaindegiak, masaje-zentroak, artisautza, osagarriak, lanparak, koadernaketak, bidaia-agentziak...

Gida honen helburua da udalerrian dagoen negozio eskaintza zabala ikusaraztea eta ezagutaraztea, Urkabustaizko bizilagunek eta bisitariak beren zerbitzuak kontratatu ahal izan ditzaten. Negozio horietako batzuk asteburu honetako azokan egongo dira eta beste asko ez, baina Udalak gida hau zabaltzea erabaki du, guztiak ezagutu ditzagun.

GAZTEAK ETA ADINEKOAK IZARRAKO JAI EI BERRIZ EKITEKO IRRIKAN

PANDEMIAREN ETENALDI LUZEA IGARO ONDOREN, AURTEN ERE IZARRAKO JAIK BETE-BETEAN OSPATUKO DIRA. IRAILAREN 30ETIK URRIAREN 3RA BITARTEAN EZ DA INOR ASPERTUKO, JAI BATZORDEAK EZ BAITU UTZI JARDUERARIK GABEKO TARTERIK.



Pandemiaren etenaldi luzea igaro ondoren, aurten ere Izarrako jaiak bete-betean ospatuko dira. Irailaren 30etik urriaren 3ra bitartean ez da inor aspertuko, Jai Batzordeak ez baitu utzi jarduerarik gabeko tarterik.

Jai Batzordea herriko gazteek osatzen dute batez ere, eta lerro hauek baliatzen dituzte beste batzuk parte hartzera gonbidatzeko, bai jaien garapenean, bai antolaketan, erreleboa eta ideia berriak beti ondo datozelako, eta beti dagoelako non eman.

Jai Batzordeak Urkabustaizko Udalaren eta hainbat elkarteren laguntzarekin antolatzen du egitaraua; hala nola Triskari Dantza taldea, Lan eta Jolas eta beren jakintza eta zaletasunak eskaintzen dituzten hamaika herritarren laguntzarekin.

Jaiei hasiera emango zaie sailhestu ezin den ekitaldi jendetsuenetakoarekin, eliza zaharretik mozzorrotutako koadrilak jaitziko dira, eta oraingoan Trelleborg Izarrako (lehen Ibercaucho) langileek botako dute txupinazoa.

Ez da faltako gustu eta adin guztietarako musika gauero (berbenak, punk-rocka Sofokosekin, folk ganberroa Moonshine Wagonen eskutik, rapa Nikotinarekin, DJak goizaldeak luzatzeko...), ezta urteroko herri bazkariaren ezinbesteko topaketa ere, non 200 herritar inguru biltzen diren.

Mozorro, mus, gastronomia, goitibehera eta igel joko txapelketak, pilota partidak, Triskantza Dantza Taldearen 'Izarren hautsa' ikuskizuna, magia, elektrotxaranga, odolki eta garagardo dastaketa, eta, jakina, txikientzako jolasak eta puzgarriak, besteak beste.

Berrikuntzei dagokienez, Jai Batzordeak gehiago osatu du eguneko programazioa, berbenen ordutegia aurreratu du eta are gehiago sendotu du goitibeheren erakusketaldia, besteak beste.

Azkenik, Jai Batzordeak herritar guztiak festetan parte hartzera eta gozatzera gonbidatu ditu.



IZARRAKO JAIK 2022
30 Septiembre, 1, 2 y 3 de Octubre

Ostirala 30 viernes

19:00 Jaitziera eta txupinazoa.
19:30 Aldats Elektrotxaranga.
20:30 Txokolatada.
21:00 Euskal Pilota partidua Frontoian.
22:00 Kontzertuak: Moonshine Wagon eta Sofokaos.
23:00 Mozorro lehiaketa eta sari banaketa.
01:30 Aldats berbera.
04:30 DJ Rosa Mari.

Larunbata 1 sábado

12:00 Koadrilaren pintxo lehiaketa.
13:00 Magia poteoa Asier Kidam-ekin.
15:00 Bazkari herrikoa.
16:00 Kontzertua: The Sakamantekas.
17:00 Mus txapelketa Nordiskan.
17:00 Izarra Gorri partidua.
19:00 Elektrokela elektrotxaranga Ostuñotik herriraino.
20:00 'Izarren hautsa' frontoian.
22:00 Kontzertua: Nikotina.
23:30 Altxaporrer berbera.
Atsedenean sokasalto txapelketa.
04:00 DJ Morax.

Igandea 2 domingo

11:00-15:00 Puzgarriak.
11:00etatik Sukaldaritz txapelketa.
12:00 Goitibeheren erakusketaldia plazan.
Izenberekua txaranga herrian zehar.
13:00 Ikuskizuna plaza berrian.
13:30 Dantza plaza Triskaririkin.
16:30 Bolo txapelketa.
17:00 V. Goitibehera jaitziera.
18:00 Umeentzako antzerkia.
20:00 Kontzertua: Dark Moon.
20:15 Goitibeheren sari banaketa.
20:30 Odoloste dastatzea.
21:00 Kontzertua: Joni Txintxes.
23:00 VII Beer Tapong Mundiala.
DJ Hebo.

Astelehena 3 lunes

13:00 Igel txapelketa.
17.30 Haurrentzako jolasak.

10 PEOI UDALERRIA HOBETZEN

10 peoi kontratatu zituen enplegua sustatzeko plan baten barruan, udalerriko eremuak txukuntzeko, konponketa txikiak egiteko, lorezaintzako eta igeltserotzako lanak egiteko eta mantentze-lanak egiteko.

Urkabustaizko Udalak, Europar Batasuna-NextGenerationEUK finantzaturako eta Lanbidek kudeatutako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, uztailean 10 peoi kontratatu zituen enplegua sustatzeko plan baten barruan, udalerriko eremuak txukuntzeko, konponketa txikiak egiteko, lorezaintzako eta igeltserotzako lanak egiteko eta mantentze-lanak egiteko.

Urkabustaizko bizilagunen enplegarritasuna hobetzeko helburuarekin, prestakuntza jarduerekin batera lan-esperientzia izateko aukera eskainiz, eta banakako laguntza emanez, laneratze egonkorragoa lortu ahal izateko.

Peoi horiek udalerriko hainbat herritan espazio publikoak hobetzeko eta egokitzeko lan ugari egiten dabilta, hala nola Abornikanoko biltegiak, Abezia bidea, Uzkiako hilerria eta garbategia, Izarrako Haurreskola, Ikastola, aparkalekua eta espazio publikoak, Goiuriko errota, Uzkiako iturria eta beste hainbat.

Udalak administrazio batzordeei gogorarazi nahi die peoi horiek sei hi-

labetetarako kontratatuta daudela; eta, beraz, kontzejuek egokitzat jotzen dituzten hobekuntza-lanak egitea eska dezaketela.

Era berean, Udalak bi peoi berri kontratatu nahi ditu sei hilabetetarako, eskualdeko enplegu programaren bitartez, eta abenduaren erdialdean hasiko lirakeke lanean. Kasu honetan, alde zuzeneko esperientzia behar da.



30 URTETIK BEHERAKO HIRU PERTSONA KONTRATATZEA

Kultura eta gizarte teknikaria, administrari laguntzailea eta ingurumen hezitzailea.

Urkabustaizko Udalak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta 'Europako Gizarte Funtzak zure etorkizunean inbertitzen du' leloa duen Euskadiko FSE Plus Programaren laguntzarekin, 16 eta 30 urte bitarteko hiru pertsona kontratatuko ditu 12 hilabetez hainbat eginkizunetarako, azaroaren hasieran lanean hasiko lirakekeenak.

Postuetako bat kultura eta gizarte teknikaria zeregina betetzeko da. Gizarte Laneko, Pedagogiako, Gizarte Hezkuntzako edo Haur Hezkuntzako edo Lehen Hezkuntzako gradua eskatzen da.

Beste bat administrari laguntzailearena da. Eskatzen den titulazioa goi mailako edo erdi mailako prestakuntza zikloa edo batxilergoa da.

Azkenik, ingurumen hezitzaile bat ere kontratatu nahi da. Kasu honetan eskatzen den titulazioa honako hau da: Lanbide Heziketako Goi mailako baso eta natur ingurunearen kudeaketa, Ingurumenaren Hezkuntza eta Kontrolak edo LH Erdi mailako natur ingurunearen aprobetxamendua eta kontserbazioa.

Eskaintzak egun gutxi barru emango dira jakitera bando bidez, interesa dutenek

Lanbiden argitaratuko den eskaintzan izena eman ahal izan dezaten.

Kontratazio horiek eskualdeko enplegu planaren testuinguruan kokatzen dira. Plan horren helburua da nagusiki gazteek sufritzen duten langabezia tasa altuari erantzutea, bai eta kolektibo horrek ia edozein lanpostu lortzeko behar duen aurretiazko esperientzia bermatzea ere.



Hemengo eta Hango Emakumeak
CECILIA G. DE GUILARTE
(TOLOSA, 1915 - 1989)



Kazetaria, eleberrigilea, antzerkigilea, saiogilea eta unibertsitateko irakaslea izan zen. Espainiako Gerra Zibila piztu ondoren, gerrako lehen korrespontsaletako bat bihurtu zen, Euskal Herriko iparraldeko frontea estaliz.

Fue una escritora que se desempeñó como periodista, novelista, dramaturga, ensayista y profesora universitaria. Tras el estallido de la Guerra Civil Española se convirtió en una de las primeras corresponsales de guerra, cubriendo el frente norte del País Vasco.